

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

GAIA

"Euskarari ateak zabaltzen" kanpaina /8

HEZKUNTZA

Hasi da ikasturte berria /8

LEINTZ GATZAGA

Andramaixetako argazkiak/10

Azkenean ere, hasi dira Larrinoko bidea konpontzen

Foru Aldundiko langileek irailaren 6an hasi zituzten Larrinorako bidea konpontzeko lanak egiten. Arekak garbitu eta aglomeratua botako dute bide guztian. Lanak Gabonetarako amaituko dituzte.

ASTEKO GAIA: ANTONIO ASTIGARRAGAREN AGURRA/5 • KIROLAK: FUTBOLEKO LIGA HASIERA/6

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 14
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 15
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
Hezibide elkarteak 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Instituitua 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxiko ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 79 74 58
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Saretxo 943 71 26 56
Taxi geltokia 943 79 22 33
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALTAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Delak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdiak 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatutan: 18:30
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO
Domeketan: 11:30

OHARRAK

ALZHEIMER GAIXOEN ATENTZIO BEREZITUAREN GAINEKO IKASTAROA

INEMek alzheimer gaixoei atentzio berezitua zelan eman irakasteko ikastaroa antolatu du irailaren 16tik abenduaren 4ra bitartean. Ikastaroa doan izango da, eta langabeei eta INEMen izena emanda daudenei dago zuzenduta. Informazio gehiago beharrez gero, deitu Debagoieneko INEMen bulegora, 943 79 71 45 telefono zenbakira. Ikastaroan parte hartuko dutenek, titulazio ofizialaz gainera, lan-poltsa baten sartzeko aukera ere izango dute.

ZURE OHAR ETA DEIALDIK ARETXAGAZETA-N

Zure bizilagunei, lankideei edo aretxabaletarrei, orokorrean, ohar bat jakinarazi gura badiezu, hemen duzu zure tarte egokia.

Deitu edo bidali zure oharra:

Tel.: 943 79 86 21
Faxa eta erantzungailua: 943 77 18 54

E-postaz, berriz, zuzendu honako helbide elektronikora: aretxagazeta@goiena.com

LORAMENDIRENAGENDA

BEINKE-LORAMENDI DANTZA IKASTEKO ENTSEGUAK

Aurten ere, azken urteotan bezala, San Migel jaietan Beinke-Loramendi dantza herrikoia egiteko aukera izango duzue herritar guztiok. Horregatik, jakin ezazue entseguak egubakoitzero izango direla, 19:30ean, Kurtzebarri Eskolan. Animatu eta ez dakizuenok, behintzat, etorri dantza ikastera!

ORAINDELA 10URTEARETXABALETAN

Maria Wörth-eko lagunak izan genituen herrian


Orain dela hamabi urte inguru, Aretxabaleta Austriako Maria Wörth herriarekin senidetu zen. Orduan, Aretxabaletako ordezkariak joan ziren Austriara. 1992. urteko irailaren 16an, berriz, Maria Wörthekoak izan genituen herrian. Bisitaldian industrialde berria inauguratu zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Kolorga"

Kolore gabea, kolorea galdu duena.
-Kolorgia, kolore zurixa ero
kanbixautako koloria; babak eta, urak pasautakuan, koloria kanbixautakuan, kolorgak. Personia be bai, gaixuak eta: "kolorgatuta dao".



ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Antziñe Mendi
7an. Zorionak eta urte askotarako, lagun guztien partetik.




ARETXABALETA
Bego Arenaza
10ean Urte askotarako, Bego! ARETXAGAZETA-koak, beti al loro!



ARETXABALETA
Nekane Kintas
11n. Berandu bada ere, zorionak, GUREAko talibanen partetik.



ARETXABALETA
Andoni Antxia
14an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Anjel Bergaretxe
14an. Zorionak eta urte askotarako, lagun guztien partetik.



ESKORIATZA
Eider Encina
18an, 16 urte. Zorionak! Amatox, aiton-amona eta osaba-izebaren partetik.



ESKORIATZA
Izar Encina
18an, 16 urte. Zorionak! Amatox, aiton-amona eta osaba-izebaren partetik.

ARETXAGAZETAK banatzaileak behar ditu.

Lansari interesgarria.

943 71 23 91



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa


Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia,1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Hirusta
Taberna

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA


IZOTZ Taberna

Mitarte, 16
Tel.: 79 73 65
ARETXABALETA

ATREBENTZIA EZ PADA / Ze animokin hasi zara barrero be eskolan?



ANDERE ETXABE
13 urte




MARKEL GUIADO
12 urte



AZAHARA ROMERO
11 urte



OLAIA GARRO
4 urte



JULEN ARRIOLA
4 urte



IXAK SARASUA
3 urte

Ez naz oso pozik etorri eskolara. Baiñe, bueno, bere alde positibue be badauko. Lagunek ikusteko eta aurtzen ze irakasle neuken jakituko gogo haundi- xe neuken.

Pozik hasi naz barrero be eskolan. Hasieran ez neuken gogo haundirik, baiñe aurtzen ze irakasle neuken jakituko kuriosidatez ninguen. Lagunek ikusteko gogue be baneuken.

Ez neuken gogorik barrero be eskolara bueltetako. Lagunek eta irakasliek eza- guketako bakarrik etorriko nitzake eskolara. Bestela, zati bat hobeto pasetan dot oporretan.

Nagore da aurtzen neure andereñue, eta oso pozik etorri naz eskolara. Lehengo lagunek ikusi dittut eta barrixek be badauket. Hala eta be, oporretan oso ondo ibiltzen naz.

Ikastolara bueltetako gogo haundixe neuken. Nik neuk oporretan baiño hobeto pasetan dot eskolan. Gaur be jolasak eta marrazkixek egiñaz pasau dogu goix osue, eta pozik nago.

Oso pozik etorten naz eskolara eta, gaiñera, ez dot bat be negarrik egin. Gaur bizikletan ibilli gare eta baloia- kin be jolastu dogu. Gusto- ra etorten naz lagun barri- xek egittera.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK INFORMAZIOGUNE APROPOSA Mankomunitateak, beste elkarte batzuekin lankidetzan, irudiotan duzen informazio- gunea jarri du Oro auzorako bide ertzean. Kartelean ibilaldi bat proposatzen da: Orotik hasi eta Larrinotik bueltan, Areantzara joa- tekoa, hain zuzen ere. Ingurukook, beharbada, jakingo duzue ibi- laldi horren berri, baina kanpotarrendako guztiz aproposa da. /A.L.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN / 4

Larrinoko bidea berritzen

Irailaren 6an hasi ziren Larrinora doan bidea konpontzen, eta Gabonetarako amaituko dute.

ASTEAN BEHIN / 5

Agur Antonio Astigarragari

Antonio Astigarrak oraingo zapatuan esan die agur herritarrei. Bartzelonara doa ikasketak egitera.

KIROLAK / 6

Preferenteak hasi du liga

Lehen partidua galdu egin zuten Bittor Muxikaren mutilek. Zazpi jokalar berri daude taldean.

ASTEKO DATUA

3.000

EUROKO LAGUNTZA JASOKO DUTE GIZONEZKOEK

Eusko Jaurlaritzak 3.000 euroko laguntza emango die gizonezko- ei, umea zaintzeko eszedentzia hartuz gero. Emakumeei, berriz, kasu berean, 2.400 euro emango dizkiete.

BESTEKE SANA


“Urkulura bide-gorria egiteko proiektua zaharra da. Kontua da arazoak izan zirela bide zaharra

errekuperatu edo berria egiteko erabakia hartzeko orduan. Azkenean bi zati desberdinetan egitea erabaki dugu. Batean bide zaharra errekuperatuko dugu eta bestean bide berria egingo dugu. Gaur lan horien ardura “Excavaciones Arrasate” enpresari ematea onartu dugu osoko bilkuran.

Proiektu hau lehenbailehen egin beharrekoa da. Izan ere, eguraldi onak aprobetxatu behar dira nahi edo nahi ez. Bide-gorria egin behar den tokia oso hezea da eta ur asko aurkituko dugu. Bidea jasotzeko orduan ur asko topatzen badugu zaila izango da lanak ondo egitea.

XABIER ETXEBARRIETA
GOITB/02-09-10

HERRITARREN BERBAK / Aitor Agiriano



Apartheid indarrean

Lagunok, ez da giro bazterretan. Espainiar gobernuak Batasunarekin egindakoak duela berrogeita hamabi bat urte Hegoafrikar Errepublikan ezarri zen sistema politikoa dakarkit gogora, zeinak arraza zurikoak ez zirenen diskriminazio sistematikoa ezaugarri baitzuen. Gurean ez dirudi kolorea denik arazo, ez; pentsaera eta eskubide kontua dago mahai gainean.

Oraingoan markak hautsi ditu Garzonek. Legea bere eginez, egiantz handirik gabeko arrazoiak testigu, hainbat herritarren ordezkariak politika eremutik zangaratu ditu, demokraziaren izenean. Abertzaleoi eustea dagokigun beste erronka bat piztu da; izan ere, dela politikan, dela kultur- an, irakaskuntzan nahiz hizkuntzan, azken urteotako eraso andana aldean daramagu eta. Aznar eta bere jarraitzaile leial diren putakume, e... barkatu, PP-kumeek, Euskal Herria eta euskaltasuna

besarkatzen duen oro urtu artekoan ez dute bakerik.

Otzanari pentsua eta makurtzen ez denari egurra; hori da bibotedunaren politika. Geure ditugun hizkuntza, kultura eta gainerako tasunak herri bat garen seinale dira; espainiar zein frantziar morfo- logiatik apartekoa den nazio baten ikur. Guztiok gara horren jakitun, baina, esaerak dioen bezala, egia, askoren erregarria.

Artaldeko kalteen jatorria ez da kanpoko piztien sarraskia soilik; ardi larruz moztortuta-

ko otsoak etxeko larretik uxatzea ezinbestekoa da eta, bide batez, sakabanatutako ardi galduek etxeratzea ere egundoko aurrerapausoa dateke.

Esan gabe doa, tamalez, gure egoera berdintsuan dauden beste herri batzuk badirela; esaterako, Israelen atzapar zorrotz eta gogorren menpeko palestinar herria. Arrain handiak txikia jango al du beti?

“Ontzari pentsua eta makurtzen ez denari egurra: hori da bibotedunaren politika”



M. J. Aretxaga

Indar- berriturik

Opore ostean berriro ere lanera. Ni indar-berriturik bueltatu naiz, eta dagoeneko eguneroko martxari heldu diot. Beste batzuk lan berriari heldu diote, eta lana goitik behera ikasi behar. Nagore Zubizarreta, adibidez, AEDko idazkari teknikari berria da. Erroka polita eta interesgarria aurrean daukana. Zorte on lan berriari!

Arrasateko euskara elkartetik gurera egingo dugu salto. Loramendi elkarteak Beinke-Loramendi dantza ikasteko ikastaroa antolatuko du. San Migelak laster helduko zaizkigu, eta dantza ikasi gura duzenok animatu zaitezte, eta hurreratu Kurtzebarri eskolara ostiral arratsaldeetan. Dakizuenoi ere ondo etorriko zaizue dantza pare bat bider entseatzeari!

ZAHARBERRITZE LANAK/ Gabonetarako konponduko dute Larrinorako bidea

Larrinorako bidea konpontzen hasi dira Foru Aldundiko langileak

AMAGOIA LASAGABASTER

Aspalditxoan itxaroten zebiltzan larrinoarrak albista: azkenean ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Saila hasi da Larrinora doan bidea konpontzen. Lanak irailaren 6an hasi zituzten, eta Gabonetarako amaituta izango dituzte.

Larrinoarrendako, batez ere, egungo bidearen egoera jasan-gaitza zen. Euren baserrietarako bidean gero eta zulo handiagoak zeuden, eta autoetan matxurak izaten zituzten. Egoera hori, baina, ez da gehiago luzatuko. Azkenean ere, irailaren 6an hasi zituzten Larrinoko bidea zahar-berritzeko lanak.

Asfaltos Urretxu enpresako langileak bide bazterreko areka guztiak garbitu, eta handik doazen hodiak ondo jartzen hasi dira. Langileen esanetan, horixe izango da aurrerantzean egin beharreko lanik neketsu eta luzeena. Gero, behin areka guztiak berdinduta daudenean, aglomeratua botako diote bideari. Hartziz eta hondarrez egindako masa da aglomeratua, eta Larrinoko bidean eskualdi bi bota dituzte; hori horrela, bide berria bederatziz zentimetro lodi izango da.

Konponketa lanak Gabonetarako amaitu beharko dituzte.

BIDEA, UDALARENDAKO

Orain dela urtebete baino gehiago, Udaltzarak Larrinoko bidea Udalaren esku uztea onartu zuen



AMAGOIA LASAGABASTER

Bide bazterreko arekak garbituz hasi dituzte lanak Larrinorako bidean.

osoko bilkuran. Foru Aldundia-
ren eta Udalaren arteko akordioa beharrezkoa izan zen Larrinoko eta Areantzako bideak konpondu ahal izateko. Gauzak horrela, Foru Aldundiak bi auzotarako bideak konpontzen dituenean, Larrinoko bidea Udalari emango dio.

Areantzako bideari dagokionez, berriz, Diputazioak egina du

dagoeneko zahar-berritzeko proiektua eta lanen ardura nork izango duen ere erabakita dago. Baina oraindik ez dakite noiz hasiko dituzten lanak. Errepide teknikariaren esanetan, eguraldi ona behar izaten da horrelako lanetarako. Edozelan ere, bide horrek, oraindik, behintzat, Gipuzkoako Foru Aldundiarena izaten jarraituko du.

LABUR

Batasunak ez zuen onartu EUDELen herri adierazpena

Batasuneko sei zinegotzietatik atzera bota zuten, azken osoko bilkuran, EUDELeke idatzitako *Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko herri adierazpena*. EAJ-EAk, PPK eta PSOER aldeko botoa eman zuten.

Urkulurako bidegorria azaroan amaituko dute

Udalak Urkulurako bidegorria egiteko beste aurrerapauso bat eman zuen joan den astelehenean egindako osoko bilkuran. Udaltzarak erabaki zuen Arrasate Indusketak enpresari adjudikatzea lanen ardura. Enpresa horrek hila-bete bi izango ditu bidegorria amaitzeko.

Hasi dira Beinke-Loramendi dantza ikasteko entseguak

Aurten ere San Migel jailetan Beinke-Loramendi dantza egingo dute herritarrek. Loramendi euskara elkarteak dantza hori ez dakitenendako eduki hobetu gura dutenendako entseguak antolatu ditu. Dantza saioak Kurtzebarri eskolan egingo dituzte, egubakoitzetan, 19:30ean.

Zubia

oinetakoak




zapatak, zapatilak,
gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00
ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53
ARRASATE

MAITE

ileapaindegia

Sarasate, • 943 79 59 05
ARETXABALETA



MAPFRE

Aseguroak

Errekabarren, 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel.: 943 79 91 84
Aretxabaleta

Taberna Berri jatetxea

Durana, 26
ARETXABALETA
Tel. 943 79 20 67

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Angelines

AUTOZERBITZUA

Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea

Mitarte, 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA



Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erlojudenda
Bitxien diseinua
Bitxien konponketa

Otalora, 4 (eliza aurrealdean)
Tel.: 943 77 13 57
ARETXABALETA

ELIZA/ Gotzainak ez du izendatu Antonio Astigarraga parrokoaren ordezkorik

Zapatuan esango die agur Antonio parrokoak herritarrei

A.L.

Sei urte egin ditu Antonio Astigarraga azkoitiarrak Aretxabaletan. Parrokiako ardura izan du denbora tarte horretan, eta lan eta proiektu ugari eroan dira aurrera haren gidaritzapean. Bihar, zapatua, agur esango die herritar guztiei.

Bitoriano Aranburuk parroko lana utzi ostean etorri zen Antonio Astigarraga. Sei urte pasatu dira ordutik hona, eta orain badao. Liturgiaren gaineko ikasketak egingo ditu Bartzelonan.

AZKEN AGURRA ZAPATUAN

Aste bukaeran esango die agur parrokoak aretxabaletarrei. Gaur, egubakoitza, afaria egingo dute parrokiaren parte hartzen duten lankide guztiek Antonio-rekin. Denetara, 70 lagun inguruk hartzen dute parte herriko parrokiaren: katekesiko irakasleak, elizkizunetako irakurleak, gaixoe-kin lan egiten dutenak... Gehientsuenak egongo dira afarian.

Bihar, zapatua, azken meza esango du herrian. 19:30ean izango da eta herritar guztiak agurtuko ditu bertan. Antoniori lagun eginez Felix Azurmendi bikario nagusia izango da, eta Antoniok alde egitean herrian egongo diren aldaketen berri emango du.

ABADE TALDEA ARDURATUKO DA

Antioniok alde egiterakoan aldaketa ugari izango dira. Haren



Aldaketa ugari izango dira Aretxabaletako parrokiaren aurrerantzean.

ARTXIBOA

ordez gotzainak ez du inor izendatu eta hiru abadek osatutako taldetxoa arduratuko da Aretxabaletako eta auzoetako parrokiez: Bitoriano Aranburu, Angel Ipiña biatorista eta Xabier Gómez Eskoriatzako parrokoa. Hiru abadeon gidaritzapean, herriko lai-

koei ere lan handia egitea egokitu zaien, seguruenik, hemendik aurrera.

Aldaketa horien guztien zain, agur bero bat eta besarkada handi bat helarazi gura diogu, herritar guztien partetik, Antonio Astigarragari.

TXUTXUMUTXUA



Giro paregabea Kurtzebarri Egunean

Arraroa bada ere, eguzkiak aurpegirik politena erakutsi zuen joan den domekan ospatutako Kurtzebarri Egunean. Aurreko gauean sekulako euri zaparrada egin zuen eta domeka goizak ere itxura eskasa zuen, baina, hala ere, 100 lagunetik gora elkartu ziren Kurtzebarri gauean. Hamaika eta erdietan mokadutxo bat jan bitartean Ramon Mari Elkorok esandako meza izan zuten. Eguneko unerik politena, berriz, beste behin ere, Ikurrinak eskaini zuen, gurutze puntan lotuta. /A. L.

LABUR

Herriko ikasle txikienak izan dira ikasturte berria hasten lehenak

Haur Hezkuntzako umeak izan dira hasi berri den ikasturtean eskolara itzuli diren lehenak. Pausoka haurtzaindegia izan da atak zabaltzen lehena. Guztira, 0-3 urte bitarteko 70 ume daude Pausokak duen eraikin berrian. Santa Ritan, berriz, 2 urteko 14 ume berrik hasi dute ikasturtea, eta hiru urteko gelan ere, 7 ume gehiago dituzte. Kurtzebarri eskolan ere, bi urteko gelan, 26 haur dituzte eta hiru urteko gelatan, berriz, guztira 30 neskatila-mutiko izango dira aurtengo ikasturte berrian.

LEIBAR

arrandegia



Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79
Aretxabaleta

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

J.J.
IRURE
ITURGINTZA

URA
GASA
KALEFAKZIOA


MITARTE, 15
ARETXABALETA

943 793 187

PAGALDAI

Opari denda
Lurrindegia

Durana, 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14



ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte, 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

Jon Díaz

Harakina

Loramendi, 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

FUTBOLA

Bittor Muxikaren mutilek ligako lehenengo partidua galdu zuten

UDAKo preferente taldeak 2002-2003 denboraldia 4-0 emaitzarekin estreinatu du

AMAGOIA LASAGABASTER

Ez ziren fin ibili preferenteko UDA taldekoak ligan jokatuako lehenengo partiduan. Real Unión taldearen aurka neurtu zituzten indarrak, eta esku hutsik bueltatu ziren etxera UDAkoak. Edozelan ere, Bittor Muxika entrenatzaileak talde sendoa osatu du.

Preferenteko UDA taldeak ezin izan zuen ligako lehen partidua garaipenarekin hasi. UDAk partidu eskasa jokatu zuen, eta lau gol egin zizkion Real Unión taldeak. Partidu osoan nagusi izan ziren irundarrak eta UDAkoek ez zuten aukera askorik izan.

ZAZPI JOKALARI BERRI

Lehenengo porrotak, baina, ez du Bittor Muxika entrenatzaile eibartarra kikildu. Aurten, berrikuntza eta guzti, talde sendoa osatu du. Denera, zazpi jokalaria berri daude talde nagusian; hiru kanpoko taldeetarik etorritakok dira. Horien artean daude Jon Unamuno Mondrako atzelaria, Ekaitz Aramendi Aloña Mendi-



Hogeita bi jokalarik izango dute aukera preferenteko UDAn jokatzeko.

ko aurrelaria eta Aitor Pérez Ermuko atezaina. Baina fitxaketa horiez gainera, beste lau jokalaria ere izango ditu preferente taldeak aurten; guztiak beheko taldeetatik igotako mutilak dira.

Bigarren erregionaletik Aritz Kortabarría, Raul Sánchez eta Alain Gómez igaro dira talde nagusira, eta gazte mailatik Juan Nuñezek jokatu du Bittor Muxikaren taldean.

KIROLETXEA

Astelehenean hasiko dira kirol etxean aurtengo ikasturteko kirol jarduera guztiak

Oporraldiaren ondoren kirol etxeak lehenengo martxa hartuko du berriro ere. Hori dela eta, dagoeneko zabalik dago hainbat kirol egin ahal izateko izenemate epea. Oraingoan, ez da aldaketarik izan kirol etxe eskaintzan; aurreko ikasturteko kirol berberak daude aukeran. Horrenbestez, sasoiaren egoteko gimnasia, aerobika, igeriketa ikastaroak eta hirugarren adineko gimnasia egin ahal izango dituzte herritarrek. Kirol eskola horiek irailaren 16an, hau da, datorren astelehenean, hasiko dira.

MENDIA

Murrukixo elkarte berriro ere bueltatu da garai baten Durana 13an zuen egoitzara

Murrukixo mendi elkarteko egoitza Durana kaleko 13. zenbakian jarri dute berriro ere, lehenengo zegoen toki berean, hain zuzen ere. Uda hasieran hasi zituzten leku aldaketa egiteko lanak, eta irailaren lehenengo astean dagoeneko egoitza zaharberrituan zeuden elkartekoak. Hemendik aurrera, hortaz, Murrukixoren ekintzaren baten gaineko informazio gehiago beharrez gero, joz egoitza berrira. Murrukixo elkarteko batzarkideak, ohi bezala, martitzenetan elkartzen dira egoitzan, arratsaldeko zazpitan.

PILOTA

Datorren astean hasiko dituzte lehenengo entrenamendu saioak herriko pilotariak

Joxe San Migelek datorren astean hasiko ditu pilota entrenamenduak Iturrigorri frontoian. Ikasturte honetan, gutxi gorabehera, 30 mutil inguru izango ditu talde gaztean; iaz baino zertxobait talde handiagoa, hortaz. Nagusien taldea, aldiz, gero eta txikiagoa da; izan ere, gazte eta kadete mailetan herriko sei pilotari bakarrik arituko dira ikasturte honetako txapelketetan.

Euskara "txinoa" bada zuretzat

...eta euskara zeurea egingo duzu.

Ni txinin, txirrin,
txirrinduila, dulai...

UDAL
EUSKALTEGIAK

Ni txirrianduan
nabil.

UDAL
EUSKALTEGIAK

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2 - 4, Aretxabaleta
Intxaurtxueta 9 - 10, Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
Telefax-a : 943 79 92 62
leintzeuskalteg@terra.es

• Euskalduntze eta
alfabetatze maila
guztiak eta EGA.

• Bulego ordutegia: 09:00 - 13:00
15:00 - 19:00
• Matrikulazio epea: Irailaren 2tik 20ra.
• Bekatze sistemak eta diru laguntzak ditugu.
GALDETU!

ERRETRATUZHARRA

Goroetarrak erromesaldian Arantzazun

Joan den irailaren 2an egin zuten aretxabaletarrek Arantzazuko Basilikara erromesaldia. Gehienek autobusez egin zuten bidea. Edozelan ere, bada oraindik Arantzazuraino oinez heltzen den erromesik.

Aspaldi, autobusik eta autorik ez zegoenean, gehienak oinez joaten ziren; eta horren adibide dira alboko erretratuan ageri diren lagunak. Gehienak Goroetakoak edo inguruko auzoren bateko bizilagunak dira.

Erretratu zaharra 1950. urtekoa da, gutxi gorabehera. Garai hartan, gaur egun egiten duten moduan, iraileko lehenengo astelehenean egiten zuten Arantzazurako erromesaldia. Goroetarrak goizeko lau eta erdietan ohetik jaiki eta koadrila bakarrean elkaturik joaten ziren denak. Gaueko iluntasunean argia egiteko kandelak eskuetan zituztela, *Markitegi* baserri-tik irten eta Urrexolagaraitik bueltan, Jaturabera heltzen ziren. Handik, Arrikurtzera, eta gero Kortako gaineraino joaten ziren; azkenik, goizaldeko lehenengo argiekin ailegatzten ziren Arantzazura. Hori bai, elizara sartu baino lehenago, bide bazter baten aurrez urratutako espartin zaharrak gorde eta domeketa-zapata dotoreak janzten zituzten.

Arantzazun, lehenengo eta behin,



meza entzuten zuten guztiek. Gero, berriz, koadrilan elkaturik, etxetik eramandakoa jaten zuten.

Goroetara itzultzeko bidea, bestalde, arratsaldez egiten zuten. Arantzazutik irten bezain azkar, On Boni abadea arrosarioa esaten hasten zen, eta jardun hura lagun zutela egiten zuten bideko tarterik handiena. Etxera heldu aurretik, ordea, beste gelditu-txo bat ere egiten zuten: Jaturaben garai bateko zentral elektrikoaren ondoan jarri eta askaria egiten zuten.

Jatekoa, jakina, Arantzazun egindako bazkaria bezala, etxetik eramandakoa izaten zen.

Goiko ilaran, ezkerretik hasita, honakoak daude: Maria Pilar Urteaga, Maritxu (*Markitei*-koa), Petra (Aozaratzako etxeandrea), Karmen (*Otalazpi*-koa), Juana Arenaza, Miguel Leibar, Joxe Urkia eta Vicenta Ugarte.

Bigarren ilaran, berriz, ezkerretik hasita, honakoak ageri dira: Damian Zugasti, Segundo Urteaga, Don Bonifacio Arenaza (Goroetako parrokoa),

Joxe Galdos, Flora Urteaga, Juanita Arregi, Guadalupe Goikolea eta Pilar Iturbe; tarteko neskatilak Marilu Errasti eta Esther Goikolea dira.

Azkenik, beheko aldeko ilaran honako mutiko koskorak ageri dira: Jose Mari Leibar, Jose Luis (Markitei-kua), Jose Luis Iturbe, Felix Goikolea, Joxe *Urkulu*, Joxe Usartxi-kiko eta Juan Mari (*Markitei*-koa).

Argazkia: Jose Mari Leibar

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte kalea
ARETXABALETA
943 77 03 08

Lie

LURRINDEGIA OPARI-DENDA

Mitarte, 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

IBARRA estankoa

PRENTSA ETA IKASMATERIALA
Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETA

ORLY

Herriko plaza z/g ARETXABALETA

Matikua jatetxea

Azata auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68

MartiW
Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

IRIARTE

Umeen denda eta lentzeria

Durana, 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko irailaren 13a / 92. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99



Herritarrak Udalarekin harremanak euskaraz izatea bultzatu nahi du kanpaina berriak.

'Euskarari ateak zabaltzen' kanpaina, abian jarri dute

AINTZANE GARDOKI

Herritarren eta Udalaren arteko hartu-emanaren euskaraz izatea du helburu kanpainak. Bi eratako 1.200 liburuxka banatu dituzte herritarren artean, posta bidez: 'Euskarari ateak zabaltzen' eta 'Hamaika arrazoi udalarekin euskaraz egiteko'. Helburua, euskara.

Postontzietan herritarrek jaso dituzten bi liburuxken helburua bakarra da: norberak Udalarekin duen hartu-emanaren euskara erabiltzea. Horretara animatu nahi ditu, behintzat, Eskoriatzako Udalak herritarrak.

Batetik, *Euskarari ateak zabaltzen* liburuxkan Udalak azken urteotan euskararen gainean egindakoaren berri ematen diete eskoriatzarrei. Historian barrena euskarak administrazioan leku eskasa izan duela esatea ez da gauza berria, baina 1995. urtean herrian Euskara Zerbitzua abian jarri zutenetik hona, makina bat lan egin da euskararen normalizazioa bultzatzeko. Geroztik,

Udal zerbitzuetan euskararen erabilera bultzatzeko plana ere bete du Udalak.

ESKORIATZARREN LAGUNTZA

Edozelan ere, orain, herritarren jarrerak aldatzea eta administra-

Herritarrek Udalarekin duten hartu-emanaren euskaraz izatea bultzatu nahi dute

Norberak dakien euskara, eskolako delata edo etxekoa delata, bultzatu nahi du Udalak

zioarekin euskara erabiltzea ezin bestekoa da bide honetan aurrera egiteko. Herritarrak erantzuna euskara hutsean jasotzeko aukera badu dagoeneko. Horretarako udaletxeko eskaera orrietan azpialdeko laukitxoak betetzea besterik ez dago.

HAMAIKA ARRAZOI UDALAREKIN EUSKARAZ EGITEKO

Bigarren liburuxkan, bestalde, Udalarekin hartu-emanaren euskaraz izateko hainbat eredu ematen dituzte. Administrazioeko hizkuntza ez da inoiz erraza izan, zaila eta jasoegia baizik. Horregatik, eta kanpaina horrekin, era ulergarrian, norberak dakien euskararekin, nahiz eskolakoarekin, nahiz etxeko euskararekin izan nahi du hartu-emanaren Udalak. "Denak direlako euskara, eta denak direlako aberatsak".

Eskoriatzako udalak, bestetik, herriko lantegi, denda, bestelako zerbitzu eta elkarteei gutun bana bidali die, Udalarekin izaten duten hartu-emanaren euskaraz izan daitezen eskatuz, eta euren bezero, eta langileekin ere harremanak euskaraz izatera animatuz.

MERTXE ARMENDARIZ / SAN JUAN KALEKOA

"Polita da eguna elkarrekin pasatzea"

Mertxe, bi San Juan kale-etako beste auzokide batzuekin batera, jai propioa izatea merezi zutela eta lanean hasi ziren orain dela 10 urte. Bihar, zapatua, San Juan kalean jaio edo bizi direnek aukera polita dute.

Bi urtean behin egiten duzue jai.

Bai, urtero egitea larregitxo izango zela-eta, horrela egitea erabaki genuen. Herriko bi San Juan kaleetako auzokideak batzen gara. Gogoia eta ilusioa badirudi biziago izaten direla horrela.

Bi San Juan kale izan ditu Eskoriatzak, ala?

Oraintsu arte ez du kale batek ere izen hori izan, baina gu beti San Juan kalekoak izan gara, eta Hidalgo kaleari ere "beste San Juan kalea" deitu izan diogu betidanik.

Eta bai batzuk eta bai besteak, parrandarako gertu beti?

Elkarrekin egiten dugu jai. Gure kalékook, egia esatearren, beti izan gara berezi samarrak. Orain herrian bertan bagaude ere, lehen, baserri girokoagoak



ginen gu, kalea ere ez genuen asfaltatuta. Kaleko giroa eta jai dearen arteko harremanari euskaraz guran festatxo bat egitea erabaki genuen, eta 10 urte beteko dituzte bihar.

Eta jendeak gogoarekin hartzen du eguna.

Lehenengo urtean 170 lagun batu ginen, itzela izan zen hurrengo bihar, seguruenik, gutxiago izango gara, baina gure nahia da egiteko hori bizirik mantentzea. Ea gure gogotxoak ere animatzen diren, polita da-eta denok elkarrekin egiten pasatzea.

LABUR

Kiroldegiak eskaintza zabalarekin hasiko du ikasturtea astelehenetik aurrera

Astelehenetik aurrera, Kirol Zerbitzuak 2002 eta 2003 ikasturterako ikastaro ugari antolatu ditu: igeriketa, gimnasia, aerobikoa, muskulazioa, urperaketa, patinajea eta kenpo izango dira aurrerakoa. Masaje zerbitzua ere eskainiko du kiroldegiak; sihatsua, allopuntura, kirol lesioak eta erlajazioa, besteak beste. Egingo diren ikastaroetan umeentzako eta nagusientzako eskaintza egiten dute. Informazio gehiagorako, deitu 943.715328 zenbakira.

Industrialdeko lanak direla-eta, Almengo Guraso Elkarteak hainbat eskaera egin ditu

Industrialdeko lanak egiteko bigarren fasea hasi denean, ikasturtearen segurtasuna bermatu nahi du Guraso Elkarteak. Horregatik, Edorta Zubizarreta industrialdeko lanen arduradunarekin bat egiten du. Oinezkoen bidea babestu, bidea argiztatu eta zirkulazioa erraztu. Oinezkoen argi jartzea eskatu du Guraso Elkarteak, besteak beste. Lehen faseko lanekin arazo asko sortu ziren, baina orain, polita da jaso duten erantzunarekin. Lanok urte eta erdi iraungo dituzte.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea.....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea.....	943 71 31 36
Kirol etxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza.....	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola.....	943 71 44 86
Almen.....	943 71 49 07
Museo Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki.....	943 71 40 77
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetza.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxiak.....	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate).....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara).....	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate).....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Onati).....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga).....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz).....	945 23 20 30
PESA (Arrasate).....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Deiak.....	112

OHARRAK

52EAN JAIOTAKOAK
1952an jaiotakoak irteera egingo dute hilaren 21ean Hondarribiara. Izena emateko, deitu Ane Miren Villarri (943 71 50 42).

ALDAIPE, EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEA
Irailaren 28an Arriolan izango den Txakurrarekin Ehiza Txikiko Txapelketan parte hartu nahi duenak izena eman hilaren 24a bitartean, elkartearen bertan, 18:30etik 20:00etara.



Umeek hasi dute ikasturtea

Pozik batzuk eta arrantzaka beste batzuk, hasi da ikasturtea. Herriko txikiak izan dira lehenak eskolan hasten. Lehenengo egunetan, umeak, egoera berrira ohitzeko, ama, aita edo amama lagun izan dira. Umea eskolara egokitzea ei da helburua, baina guraso eta amama batek baino gehiagok nahiko larri pasatzen ei dute garai hori. Animo guztioi!



Dorletako Amabirjinari kantuan

Eskoriatzar asko joan zen pasa den domekan Gatzagara. Bi autobus txiki eta auto ugari, fede handia baitiote eskoriatzarrek Dorletako Amabirjinari. Meza Nagusian Eskoriatzako parrokiako abesbatzak abestu zuen, eta lekukoen esanetan oso ondo abestu ere, gainera. Meza ondoren merezitako luntxa izan zuten abeslariak. Xabier Gómez parrokoak umeak bedeinkatu zituen.

LABUR

Amuskak batzordekideak berritu eta ikasturtea prestatzen hasi da

Dorleta Lezeta da Amuska taldeko presidente berria, Mari Carmen Fernández presidenteordea, Juani Gallego idazkaria, Maite Altuna diruzaina, eta batzordekideak, berriz, Espe Isasmendi, Lore Alcoz, M. J. Uribe eta M. J. Martínez dira. Zortzi lagunek osatzen duten

batzordea urtero berritzen du Amuskak, baina batzorde erdia bakarrik berritzen dute; lau batzordekide gelditu eta beste lau berri sartzen dira. Amuska taldea, bestetik, hasi da ikasturte honetarako ikastaroak eta egingo dituen beste ekin-tza batzuk antolatzen.

Aurtengo 'Gida' osatzeko lanari ekin dio Samin Larrañaga gazte arrasatearrak

Samin Larrañaga gazte arrasatearra dagoeneko hasi da 2002-2003 urteko Gida Komertziala osatzeko lanetan. Eskoriatzan ere, lana egiteko, herriko merkataria eta enpresak bisitatuko ditu, gehienbat. Urtero moduan, Gida Goiena kooperatibak argitaratuko du. Aurten, gainera,

berritasun bat baino gehiago izango ditu gidak; besteak beste, diseinu eta zerbitzu berriak eskainiko ditu. Gatzagako, Eskoriatzako, Aretxabaletako, Arrasateko eta Aramaioko komertzio eta enpresen informazioa jasoko da Gida-n. Urte hasierarako gertu egongo da.



- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak


Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 31 29/ Eskoriatza 20540



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurrira eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274



Eta gainera, zerbitzua etxera!

Aranburuzabala 3
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 45 46

Ordutegia: 9:00-13:30 eta 17:00-20:00

AZKOAGA ESTANKOA

Zure Zerbitzura

OTZETA TABERNA • JATETXEA

- Eguneko menua
- Palter konbinatuak
- Bokadiluak
- Pintxuak



Aranburuzabala 7. Tel.: 943 71 51 90 ESKORIATZA

Gatzagarrek agur esan diete Andramaixei, hori bai, jaiak gogotik gozatu eta gero

AINTZANE GARDOKI

Udalak oraindik ez du egin pasatu berri diren jaien gainean inolako baloraziorik, baina, hara eta hona herritarrei galdezka ibili eta gero, badirudi jendea pozik dagoela aurtengo Andramaixe-kin. Eguraldiarekin kexatu da bakarren bat, programan gauza gutxi izan dela ere bota du besteren batek, baina, orokorrean, jaso den inpresioa ona dela esan daiteke. Suzko erruberrak, arrakastatsuak. Dena dela, badira oraindik ere jai giroan jarraituko dutenak, etzi, erretiratuen txanda izango da-eta.

ARGAZKIAK: AINTZANE GARDOKI.

Izan diren ekitaldi guztien artean, suzko erruberrak oso gustuko izan dituzte herritarrek

Erretiratuek etzi, domeka, jaietako programaren barruan, euren eguna ospatuko dute




Barikuan, Nobenaren ondoren, Otxoa eta Pekeño buruhandiek lan ederra izan zuten.



Iban Uberoaga izan zen txirrundulari guztien artean azkarrena.



Roberto Egia eta bere kideak irabazi zuten aurtengo Mus txapelketa.



Umeek, izerdi-patsetan, puzgarrietan gora eta behera pasatu zuten arratsaldea.



Herri bazkarian gonbidatu berezia izan da aurten: Saharatik etorritako Ahlila.



Egañak eta Lizasok aurten ere eurenak bota zituzten.



Otxandiarrak botak jantzi eta, hutsik egin barik, Gatzagan izan ziren.



Ume askok jaso zuten Dorletako Amabirjinaren bedeinkapena.

2002 · 2003

Matrikula-epea irailaren 2tik 20ra

ingelese | frantsese | alemana

maila eta adin guztiak | eskolak goizez eta arratsaldez

b **berbetan**
HIZKUNTZA ESKOLA

belorrieta 4
20550 aretxabaleta
tel./faxes:
943 79 00 69
bulego ordutegia:
16:00 · 19:00

Mountain Hard Wear
Millet
Ternua
Salewa
Solo
Tuckland
Salomon
Peltz
Boreal
Asolo
Ferrino
Vaude
Garmin
Magellan
Neak
Coleman
Grivel
Rossignol
Atomic
Fischer
Nordica
Lange
Head
Salomon
Dynastar
Skitrab
Low
Sarpa
K2
Mitre



www.forumsport.com

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6
20500 Arrasate, Gipuzkoa
Tef. 943 77 30 72


Citroën C3

Nabarmenki berria



Azkenean ere, hemen dago.
 Nabarmenki apurtzailea den autoa heldu da.
 Barrualdea eta kanpoaldea, zu liluratzeko pentsatuak.
 Nabarmenki berritzailea: aparkatzeko laguntza elektronikoa,
 direkzio lagundu elektronikoa, aire-girogailu digitala...
 Nabarmenki gaztea: irrati CD ekipoa, 6 bozgorailurekin.
 Nabarmenki praktikoa: maletategi modulagarria (Moduboard)

Nabarmenki oldartsua: 110 ZPrainoko motorrak.
 Nabarmenki segurua: ABS balaztatze banatzaile elektronikoa
 arekin eta urgentziatzeko balaztatzeari laguntza, ESP (egon-
 kortasunaren kontrol dinamikoa) eta 6 aire-zaku.
 Eta pribilegiatu sentitu gura baduzu, ikus ezazu mundua
 bere sabai panoramikoaren bitartez.
 CITROËN C3 berria. Nabarmenki ezberdina.

 **CITROËN C3**

9.430 €-tik aurrera

www.citroen.es

Ekipamendua bertsioen arabera. Sainemaria gomendatua C3 1.1i modeloerendako (IBEZ, matrikulazio zerga, garraioa, merkaturatze-promozioa eta gasolina autoerendako Prever Plana barne). Hori guztia aplikagarria izango da operazioan parte hartzen duten salmenta lekuetan. Baliagarria hilabete amaiera arte stock-ean dauden autoetan, penintsulan eta Balear Uharteeetan. Citroën Informazioa: 902 44 55 66

CITROËN - EK EDOZER EGIN DEZAKE ZUGATIK

Etor zaitez:

CHAPIME TAILERRAK SCL Citroën-eko Kontzesionario Ofiziala

San Andres auzoa 5. Tel.: 943 79 45 22. Arrasate.


CITROËN